



# OSASUNA FUNDAZIOAREN FUTBOL ESKOLAREN EGOITZA

2018-2019 DENBORALDIA



*Bizi esperientzia garritxo!*



## • OSASUNA FUNDAZIOA

Osasuna Fundazioa 2001eko apirilean sortu zen. Bere helburua Osasuna KAren oinarri futbola kudeatu eta sustatzea zen eta, horrekin batera, osasunazaletasuna Nafarroatik barrena zabaltzea kirol, gizarte eta kultura jarduerak eginez.

Bere kirol proiektu nagusiena, entitatea jaio zen urte berean sortutako **Futbol Eskola** da.

Egun, Osasuna Fundazioak **txikienen kirol eta giza heziketa bermatzen** jarraitzea du helburu eta, horretarako, zuen laguntza behar duen proiektu erakargarria eskaintzen du.





## • ZER DA FUTBOL ESKOLA?

Futbola, aisialdi jarduera bezala ulertuta, **4tik 14 urtera bitarteko haurrei** kiroltasuna, esfortzua, lankidetzeta, eta antzeko balore garrantzitsuak transmititzeko erreminta paregabea da. Hots, ikaslearen heziketa integralean laguntzen duten alderdiak lantzeko ezinhobea.

Ongi pasatzea eta haurren hezkuntza lehenesten dituen lan filosofia bat, kirol ikasketa bermatuz eta ikasle bakoitzaren beharrei egokitua.

**Futbol eskola** Nafarroako hainbat herritan egiten da. Bertan, teknikari adituek Taxoareko metodologia zabaldu eta erabiltzen dute. Gaur-gaurkoz, 9000 haurrek hartu dute parte **urritik maiatzera** bitarte egiten den ekimen honetan.





## • FUTBOL ESKOLAREN EZAUGARRIAK

**Adina:** 4tik 14 urtera bitarteko haurrak (udalerrri bakoitzaren arabera: Kluba, Udala eta Fundazioa)

**Taldeak:** ikasleen adin eta mailaren arabera.

**AUKERAK:** Hastapenak (4-6 urte), Ikasketa (7-10 urte) eta Teknikazioa (11-14 urte)

**Entrenamenduak:** astean entrenamendu bat edo bi egiteko aukera.

**BLOKEAK:**



**Hezkuntza-Aisialdia.** futbolaren hastapenak eta hobekuntza. Haurren oinarrizko gaitasunak hobetzera begirako entrenamenduak.

**TEKNIFIKAZIOA.** Hobekuntza.

**Atezainak.** Posizio hau lantzeko entrenamendu zehatzak.



**Aldizkako ebaluazio sistema:**

Ikasleek ebaluazio metodo berezia dute: “golen karneta”. Horren bidez, haurren jokabidea saritu edo zigortu egiten da eta, era berean, gurasoei informazioa helarazteko balio du.



## • ZER JASOTZEN DU IKASLEAK

- ⚽ **Asegurua** mediku zerbitzua min hartuz gero eta baita erantzukizun zibilekoa.
- ⚽ **Entrenamenduak** astero (1 edo 2 egoitzaren arabera).
- ⚽ **Kirol jantziak**: txandala, bi kamiseta eta praka motza.
- ⚽ **Taldekilde guztiekin estadiora joatea** Liga partida bat ikustera.
- ⚽ **TAXOAREko amaiera jaialdira joatea**: egoitza guztiak.
- ⚽ **Osasuna Promesas´ Liga** egoitza guztien artean.
- ⚽ **Maila altuko entrenatzaileak** (CAFYD, irakasleak, eskarmentu handia...)



## • ENTITATEARI PROPOSAMENA

⚽ **Kirol instalazioak uztea** herriko entrenamenduak egiteko. Orduategiak instalazioaren arabera ezarriko dira.



## • ENTITATEKO ABANTAILAK

⚽ 2018/19 denboraldiko Osasuna Fundazioaren Nafarroako Futbol eskolaren **egoitza ofizialetako** bat zuen herrian izan dadin.



# “OSASUNA PROMESAS” LIGA



# AMAIERAKO JAIA







# OSASUNA FUNDAZIOAREN FUTBOL ESKOLAREN EGOITZA

2018-2019 DENBORALDIA



*Bizi esperientzia garritxo!*